

BIZKAIKO EGOILIAR BATEK ATZERIAN JASOTAKO PENTSIOEK PFEZ-N IZAN BEHARREKO TRIBUTAZIOA

Pentsio publikoak: Aurreko enplegu publiko batengatik jasotzen den pentsioa da; esan nahi baita, estatu bati, haren azpiatal politiko bati edo toki erakunde bati emandako zerbitzuengatik jasotzen den pentsioa da, esate baterako funtzionario batek jasotzen duena.

Pentsio pribatuak. Aurreko enplegu pribatu batengatik jasotzen den pentsioa da, betiere enplegu pribatuztat hartuz enplegu publiko gisa identifikatzen denari kontrajartzen zaiona; hartara, sektore pribatuko langile batek gizarte segurantzatik jasotzen duen pentsioa, adibidez, pribatua izango da.

Herrialdea	Pentsio pribatuak	Pentsio publikoak	
<p>Alemania,</p> <p>Estatu Batuak</p> <p>Suedia</p> <p>Finlandia</p> <p>Erresuma Batua</p> <p>Frantzia</p> <p>Italia</p> <p>Portugal</p> <p>Errusia</p>	<p>NAZIOTASUN GORABEHERA</p> <p>Pentsio pribatuak Espainian baizik ez dira zerga ezarpenaren pean jarriko.</p> <p>Zenbait hitzarmenetan ere ezartzen da beste estatuan tributazioari loturik egoteko aukera, eta kasu horretan nazioarteko ezarpen bikoitzagatik kenkaria aplikatzeko eskubidea dute (Suediaren kasuan izan ezik; izan ere, ezarpen bikoitza saihesteko neurriak Suedian bertan hartuko dira, eta Espainian ezin izango da inolako kenkaririk aplikatu, Suedian ordaindutako zerga dela eta).</p>	<p>NAZIOTASUN ESPAINIARREKO PENTSIODUNA:</p> <p>pentsioek Espainian baino ez dituzte ordainduko zergak. Frantziarekiko hitzarmenak exijitzen du naziotasun bikoitzik ez izatea.</p>	<p>NAZIOTASUN ESPAINIARREKO PENTSIODUNA EZ BADA:</p> <p>Pentsio publikoak beste estatuan baino ez dituzte zergak ordainduko. Espainian pentsio publikoak salbuetsita egongo dira.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Herrialde batzuetan kobratutako pentsioei dagokienez (Alemania, Estatu Batuak, Frantzia, Italia, Portugal, Errusia), salbuespena progresibitatearekin aplikatuko da. (salbuesitako pentsioaren zenbatekoa kontuan hartuko litzateke gainerako errentei aplikatu beharreko karga kalkulatu ahal izateko). • Beste herrialde batzuetan (esate baterako Finlandian edo Erresuma Batuan) salbuespena oso-osoa izango litzateke. • Suediarekiko hitzarmenak ezarritakoaren arabera, pentsioa PFEZren aitortzearen sartuko da eta Espainiak onartuko du (ezarpen bikoitzari buruzko hitzarmenaren 24.2 artikulua) Suedian lortutako pentsioari dagokion zerga espainiarraren zatia, betiere Espainiako errentaren gaineko zergaren kenkari gisara.
<p>Norvegia</p>	<p>Norvegiako urterokoak, pentsio eta ordainsari baliokideak, pentsioak eta Norvegiako Gizarte Segurantzaren araubidean ezarritako bestelako ordainketak, Espainiako egoiliar fiskal bati ordaintzen zaizkionak, Espainian baizik ez dira zerga ezarpenaren pean jarriko. Espainiako egoiliarrek jasotako eta Norvegiakoak diren pentsioak zamatzeke zerga ahalmena Espainiari baino ez dagokio. Ezarpen bikoitzari buruzko bestelako hitzarmenetan ezarritakoaz bestaldera, Espainiaren eta Norvegiaren artekoak ez du bereizten pentsio pribatuen eta publikoen artean, eta bi kasuetan 18. artikulua aplikatuko da.</p>		
<p>Danimarka</p>	<p>2009. urtetik aurrera, ez dago hitzarmenik Espainiaren eta Danimarkaren arteko nazioarteko zerga ezarpen bikoitza saihesteko; Danimarkako jatorria duten errenta guztiguztiek, Espainiako egoiliar batek eskuratzen dituenek, Espainian ordaindu behar izango dituzte zergak. Errenta horiek Danimarkan zergapetzen badituzte, zergadunak nazioarteko ezarpen bikoitzagatik kenkaria aplikatu ahal izango du.</p>		